

aikar!

eriko alätzkaria



Hator, hator



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzketan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Bestorrene, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Maitane Urrutikoetxea, Ana Mezo, Udane Goikoetxea, Juan Luis Goikoetxea eta Sondika Goiri argazki taldea.

Portadaren argazkia: Joseba Apezetxea

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Jagoba Zallo eta Iñaki Astorkiza

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



diruz lagundutako aldizkaria



28 Lezamako lamiak



14 Nerea Arregi



12 Mikel Urdangarin



26 Argazki erakusketa, Sondikan

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **12**Gurean izan da... Mikel Urdangarin **13**Gaztea eta... Nerea Arregi **16**Urte Zaharra, Urte Barria **24**Glas Control **26**Argazki erakusketa: Sondika Goiri taldea **28**Lezamako lamiak **30**Ipuinak: Josu Garcia eta Marga Martin **32**Azurmendi Txakolindegia **35**Derioko Berbalagun taldea **36**Teknologia **38**Musika **39**Txorierri ezagutu **40**Sukaldaritza **41**Denborapasa

Eguzkiaren mundua



UDANE GOIKOETXEA
(Kazetaria)

Estetika orokor batek harra-patu gaitu. Karpapean be eguzkiak argitzen dau eszenatokia, naturaren koloreak oinarri dituana. Eguzkiaren zirkua da. Urrunetik etorri da hurrekoa erakutsi eta irakasten. ...Itsasoa zeharkatuta, Kanadatik etorri jakuz Bilbora. Mundu osoan egiten ditue erakustaldiak eta arrakastatsu egin bere. Eguzkiaren zirkua ezagun ezaguna da eta izen handikoa gainera. Bizkaiko uriburua hautatu dabe beste behin euren ikuskizuna herritarrei eskaintzeko. Artean bere izan dira berton. *Kidam* eta *Salimbanco* lanak erakutsi zituen aurreko egotaldietan. ... *Dralion* orain.

Ikuskizun berezi baizen bitxia da *Dralion*. Ekialdeko Dragoia eta Mendebaldeko lehoia alkar hartuta datoz, biena da eguzkiaren zirkua, mundua. Erritmo bizia, kolore gama ia osoa eta ikuskizun bakotxaren aparteko xarma dira gogoa daukadanak -enaz arte kritikaria, ez-. Tik-tak. Baina zirkua bera deskribatzea... ez, ez dot asmo. Tik-tak. Egunerokotasunak jan ez nagian, erlojuak

gidatu ezteko esperantzaz egin deusat lekua zirkuari zapatu hotzean. Bai, esango dozue, egunerokotasunak egiten ditu momentuak, urteak, bizitza bera. Baina, topikoa izan daitekeen arren, gaur eguneko gizarteak nora ete geroaz galdetzen deusat neure buruari. Kontu askoren artean (dana ezin esan lerro laburrotan) indibidualismoa. Zein arrazoiengaitik ezin ikusi daiekguz ingurukoen begiak? Ikusi bai, ulertu ez... Grisak, urdinak, beilegiak, marroi kolorekoak, baltzak, begi berdeak bere badagoz, eguzkiaren zirkuko eszenografiaren berde kolorekoak, bizibiziak. Begi pare bakotxak begiradea dauka, eta begirada horren atzean mundu berezia. Bizitzaren erregaluen artekoak dira begiradak eta arnasea. Joanean goaz eta arnasea bai hartu egiten dogu baina eta emon? Arnasea bizitzea da, eta sarritan begietara begiratu nahiko da, nahiko da lagunei, familiakoei, ingurukoei begietara zuhur, sakon begiratzea arnasea emoteko. Tik-tak. Arnasea hartu eta emon. Zirkua ja-

“Arnasea bizitzea da, eta sarritan begietara begiratuta nahiko da, nahiko da lagunei, familiakoei, ingurukoei begietara zuhur, sakon begiratzea arnasea emoteko”

azkenengoz noiz entzun dodan halakorik. Goizeko bostetan, egunero egunero dinotsat -ahopeka, txoriak bere lo egoten dira ordu horretan- neure buruari... bai, Bizitzea ederra da. Ez, ez dakartzuet besterik horixe baino, danok daki-gun kontua besterik ez oraingo honetan eguzkiaren zirkutik.

LOE lege barria



ANA MEZO
(Irakaslea)

Abendutik aurrera lege barria ezarriko deuskue eskoletan -Haur Eskoletatik hasi eta Unibertsitateraino-. Aspal-ditik gertatzen dan moduan, Espainian gobernatzen dauan alderdia aldatu, eta horregaz batera Hezkuntzarako lege barria datorku oraingoan be Madriletik.

Legearen zirriborroa irakurri eta gero, garbi dago lege horrek -aurreko guztien antzera- ez deusola Euskal Herriari azken 200 urteotan egindako kaltea aitortzen. Orain arte, autonomia estua izan da eta, lege honegaz halan izaten jarraituko dau, Euskal Herriari ez jako-eta aitortzen izakera propiorik, Euskal Herriak beharko leukeen eskola alboratu egiten dau-eta. Lege honek ez dau batzen, ezta onartzen be, tokian tokiko kultura (hizkuntza) eta nortasun propioa. Bakoitzaren kulturatik beste kultura batzuei erreparatu barik, Europa teknokrateari begira dago.

Baina hori ez da barria, industrilizatzeko sasoian be, industriarako langile kualifikatuak formatzea baino ez zan izan eskola haren helburua. Orduko gobernariak eurek sortu eben eskola, eta etekinik handiena ataratzea euki eben asmo nagusia.

Beraz, geure buruari galdetzen badeutsagu eskolak zein funtzio bete behar dauan, esan beharko dogu herriaren onurarako zerbitzua izan beharko leukeela eskolak, eta ez leukeela merkatuaren eta Estatuaren edo alderdi politiko baten esanetara egon beharko.

XXI. mende honetan -daukagun eskarmentuagaz- bada ordua Euskal Herriak bere eskola propioa eukitzeko, eta Estatuetatik jatorkuzan legeen aurrean intsumisioa erakusteko eta “Euskal Herriak Bere Eskolak” eta antzeko ekimenak jorrazteko eta indartzeko.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Borrokaz, aske biziz, independentzia

Iazko datu batzuk irakurri ondoren, argi dago botere ekonomikoek zein politikoek ito gura gaituela gazteok, hainbat errepre-sio-bide erabiliz.

Lanari dagokionez, behin-behinekota-suna gero eta handiagoa da eta horren era-kusgarri dira ondorengo adibideak: kon-tratuen %5 baino ez da finkoa; 2004an 51 gazte hil ziren lan-istripuetan; Iparraldean %35ek baino ez dabe euren herrialdean lan egiten...

Etxebizitza ere gaur egun pil-pilean dagoen arazoa da: Gazteen %21 baino ez da gurasoen etxetik kanpo bizi; Euskal Herrian 234.283 etxe dagoz hutsik, eta ban-ketxeek 170 euro kobratzen dabe, maile-guan emondako 100 euroko.

Azkenik, argi dago azken urteotan gaz-teok pairatzen dogun polizia-terrorismoa areagotu egin dala 2004. eta 2005. urtean: 192 gazte atxilotu dabez; 5 lagun estradita-tu, eta 300 gazte inguru epaitu, 32k tortura



larriak salatu dabez ...

Baina gazte... egon ziur indarrak batuz eta borroka gure tresna bihurtuz, lortuko dogula egoera aldatzea. Beraz, antolatu eta borrokatu!

Txorierriko Gazte Mugimendua

Euskararen ateak, beti zabalik

Larrabetzura etorri zara, herri euskaldun batera. Etxeko txikienek euskaraz egiten dute eskolan. Zeuk ere garai batean egin zenituen ahalegin batzuk euskara ikasteko, baina orain ez zara ausartzen dendan ogia euskaraz eskatzera. Dendariaren hitz-jarioa ulertuko ez duzun beldurrez. Jarraitu ezinik geldituko zaren beldurrez.

Horrela bada ere, ez etsi! Larrabetzun,

zurekin berba egiteko prest dagoen lagun asko dago. Erraztasuna hartzen laguntze-ko. "Berba lagunak" gara eta astero elkar-tzen gara berba egiteko. Zeuk ere berba laguna behar duzula? Eman zure izena Arrekikili euskara elkartearen edo liburute-gian. Euskararen ateak beti daude zabalik!

Arrekikili, Larrabetzuko Euskara Elkarte

31ko gaua

Ez dakit konturatu zareten, baina urriaren 31tik aurrera, Euskal Herriko zerua beste izar berri batek argitzen du. Argi berri horrek Kotto du izena.

Kartzela-politika eta hura bultzatzen dutenak dira Kotto hil izanaren errudunak. Izenik ez dut zertan eman, guztiok ezagutzen ditugu-eta.

Gatazka konpontzearen aurka dau-denek ere nahitaez ikusi beharko dute izar hori, eta euskal preso eta iheslari guztiak nola etxeratzen diren ere bai.

Kotto, gogoan zaitugu! Sakabana-keta hiltzailea!

Larraitz Rike

Euskararen Eguna, arrakastatsua Txorierrin

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zen eta Txorierrin ere hainbat ekitaldi antolatu ziren. Ekitaldiok hilaren 1tik 3ra bitartean egin ziren Sondikan.

Abenduaren 1ean, Txorierriko zenbait ikastetxetako 135 bat lagun hurbildu ziren Kultur Etxera, *Larru haizetara* antzezlanaren ikustera. Eta hurrengo egunean, eskoletako umeek hartu zuten txanda. Horrela, bada, Sun Magoak 2 urtetik eta 5 urtera bitarteko umei zuzendutako saioa eskaini zuen. “Kultur Etxean 320 pertsona inguru egongo ginen. Emanaldi egokia izan zela uste dut, izan ere, magoak haurren arreta mantentzea lortu zuen eta umeek ere ikuskizunean parte hartzeko aukera izan zuten”, esan digu Lurdes Lasuen Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikariak. Beste alde batetik, kiroldegiko kantxan zein frontoian eskulan eta zirko tailerrak egin ziren 6tik 11 urte arteko umeentzat. Kiroldegian 500 ume aritu ziren eta, euren adierazitakoaren arabera, oso gustura ibili ziren. Arrastian txalaparta eta talo tailerrak antolatu zituzten eta giro polita sortu zen frontoian.

“Abenduaren 3an Mikel Urdangarinen kontzertua izan genuen Kultur Aretoko auditorioan, eta espero baino jende gutxiago hurbildu bazen ere, oso giro ona egon zen. Kantariak berak ere oso gustura aritu zela aitortu zigun”.

Euskararen Eguna ospatzeko ekitaldiak hiru lekutan egin ziren: Kultur Aretoko auditorioan eta kiroldegiko frontoian eta kantxan, hain zuzen ere. “Hiru lekuak oso ondo atonduta egon dira eta auditorioa lehen aldiz ezagutu dutenak aho zabalik geratu dira, Sondikak duen leku zoragarri hori benetan ikusgarria delako”.



Larrabetzu, Lezama, Sondika, Derio, Txorierrira osatzeko falta Zamudio. “Euskaraz hitz egizu” andereñok dio, erderaz berbetakogu ez gara jaio.

Euskaraz bizitzea da gure helburu, horretan ari gara belarri eta buru. Eskolan ikasteko hainbeste liburu; hori egin ezkeror... irabazleak gu!

Doinua: “xarmagarria...”

6. mailako neska-mutilak
Gorondagane ikastetxea



Hedabideen diru-laguntzen murrizketa salatu du Topaguneak



Eusko Jaurlaritzak azaroan jakinarazi zuen zelan banatuko zituen "euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko" 2005eko diru-laguntzak. Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak diru-laguntzok asko murriztu direla salatu zuen Donostian, abenduaren 2an.

Topagunean federatuta dauden EAEko tokiko aldizkariak % 6 murriztu zaizkie diru-laguntzak 2002tik hona, Topaguneak azaldu duenez. "Baina aldizkariok 2002an baino etxe gehiagotara heltzea lortu dugu; zabalkundea % 11 hazi da". Tokiko telebistek dagokienez aipatu zuten Eusko Jaurlaritzak emandako diruarekin ezin diotela digitalizazioari aurre egin, ezta telebista berririk sortu ere. "150.000 euroekin ezin da behar bezalako euskarazko tokiko telebisten sarerik osatu".

Euskara Elkarteen Federazioaren arabera, hedabideentzako diru-saila ez da hazi aspaldian, eta 2006. urterako aurrekontu proposamena ere ez da nahikoa. "Bete nahi ditugun beharrak ezin dira 200.000 euro

gehiagorekin estali". Beste alde batetik, hedabideek oraindik ez dakite noiz jasoko duten aurrekontutako diru-laguntza.

Topaguneak ziurtasuna eskatu du, komunikabideek lanean jarraitu ahal izateko. Halaber, Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideen diru-laguntzen banaketaren politika aldatu behar dela uste du. "Urtetik urterako aurrekontuak aztertuta, datuek sektore batzuetan gero eta diru gutxiago aurreikusten dela esaten digute, eta ez da nahikoa euskararen garapenean urrats esanguratsuak emateko". Horrela, bada, euskararen erabilerak duen garrantzia aurrekontuan isla dadila eskatu dute. "Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian erabileraren garrantzia azpimarratzen da, baina orain arte ez da aurrekontuetan islatu. Euskaraz ekoizten dena zabaltzeko bideak eta helburu horretara zuzendutako irizpideak behar ditugu". Aipatutako kezkei irtenbidea emateko behar diren bideak jorratzeko prest dagoela jakinarazi du Topaguneak.

www.lezamabizirik.com web orria, abian

Lezama Bizirik koordinakundeak www.lezamabizirik.com web orria jarri du martxan. Web orri horren helburua da Bilboko Metropoli Lurralde Plan Partziala jendea-ri ezagutaraztea; plan horren informazioa eta mapa bertan kontsulta daitezke. Horrez gainera, koordinakundearen nondik norakak eta Lezamako arau subsidiarioak ere azaltzen dituzte. Web orria gazteleraz egina dago; hala ere, laster euskarazko bertsioa eskegitzeko asmoa ei dute.

Ipar-Alde abesbatza taldearen disko berria, kalean

Derioko Ipar-Alde abesbatza taldeak 20 urte bete ditu eta, urteurrena ospatzeko, disko berria kaleratu du. Diskoa taldearen bigarrena da eta Euskal Herriko polifoniako 15 abestik osatzen dute. Abesti guztiak euskarazkoak dira.

Lanak *Erromeria* du izena eta Derioko San Kristobal elizan grabatu dute. Lehenengo diskoa orain 10 urte egin zuten Gabonetako kantuekin.

Beste alde batetik, Ipar-Alde abesbatza taldeak "Txorierriko Gabon Kantak Jaialdia" antolatuko du, urtero legez; aurreko jaialdi horren XX. edizioa da.

Testua: Bestorrene



Enpresa-parkea eraikiko da Derion

Neinor enpresak Astikene enpresa-parkea egingo du Derion. Lanak datorren udan hasiko dira eta 2008an bukatuta izatea espero dute. Proiektuan 50 milioi euro inbertituko dira: Neinor enpresak erdia ordainduko du; beste erdia parke horretan kokatuko diren enpresek jarriko dute. Aurreikuspenen arabera, Astikenen 100 enpresa eta 500 bat langile arituko dira.

Enpresa-parkea 110.000 metro koadroko eremu batean ezarriko da: enpresa-guneak 46.000 metro koadro izango ditu; gainerako lurretan berdeguneak, kirol-instalazioak eta aparkalekuak jarriko dira, besteak beste. "Esparru atsegina eta ondo

komunikatua izango da", esan zuen Agustin Fernandez Neinor enpresako presidentea. Astikene eraikin gutxien duen industriagunea izango da Bizkaia mailan.

Beste alde batetik, Lander Aiarza Derioko alkatea pozik agertu zen proiektuarekin. "Aurreko gobernuaren lana orain islatzen da eta niri alderik goxoen dago kit". Alkatea esandakoaren arabera, industriaguneak eragin oso txikia izango du Astikene aldean dauden baserri bitan, eta etxeen jabeek proiektua ezagutu dute eta ados daude.

Testua eta argazkia: Gaizka Eguzkiza



Kultura Ministerioak Zamudioko liburutegia saritu du

Zamudioko liburutegiak Kixoteari eta Andersen idazleari buruzko ekimenak landu ditu aurtan. Lan eta programa horiek Madrilgo Kultur Ministerioan aurkeztu, eta saria jaso du. Liburutegiari 200 liburu eman dizkiote saritzat.

Kixoteren ibilaldian ekintzak irakurketa bul-tzatzea zuen helburu eta bertan Derioko eskola-ko 6. mailakoek hartu zuten parte. Cervantesen biografia lantzeaz gainera, Mantxako hainbat herri kokatu eta paperezko ibilaldi turistikoa egin zuten.

Andersen gaineko ekitaldiak ere umeengan irakurketa suspertzea zuen helburu, eta bertan Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko eskolako haurrek parte hartu zuten. Idazlearen ipuinak landu ez ezik Aitona Balentinen ipuinak ere eza-gutzeko aukera izan zuten umeek

Umeentzako azoka, Loian

Abenduaren 28an, arrastiz, Umeentzako Azoka Txikia izango da Loiuako pilotalekuan. Haurrek erabiltzen ez dituzten jostailuak, liburuak eta diskoak bertara eraman, eta saltzeko edo beste lagunekin trukatzeko aukera edukiko dute. Gainera, Auskalo animazio taldeak saioa eskai-niko du.

Zamudioko Korala, Santiago katedralean

Zamudioko Kamara Koralak abenduaren 23an kontzertua eskainiko du Bilboko Santiago kate-dralean, Norvegiako kontsulatuak gonbidatuta.

Bilboko Zazpikaleetako komertzioek eta herri nordikoen kontsulatuak hainbat ekitaldi antolatu dituzte Gabonetan. Danimarka, Islan-dia eta Suediako gnomoak eta sorginak izango dira Tenderia kaleko inguruan; Finlandiako Aita Nöelen etxea Bidebarrieta kalean ipiniko dute, eta Noruegako trollak La Cruz kalearen inguruan egongo dira. Horrezaz gainera, hitzaldiak eta erakusketak egingo dira. Ekitaldion helburua da Europako beste herrialde batzuetako Gaboneta-ko ohiturak euskaldunei ezagutaraztea.



Larrabetzuk badu bere bandera

Abenduaren 17an, Larrabetzuko bandera aurkeztu zen herritarren aurrean. Udalak hainbat ekitaldi antolatu zituen egun horretarako: aurrekua, trikiti emanaldia, luntxa...

Bandera Larrabetzuk duen lehenengoa da, "beti eduki dugu buruan. Armarria bagenuen, baina bandera herria identifikatzeko duen elementua da eta Larrabetzuk ere izan behar du, beste herriek bezala", azaldu digu Tomas Ordeñana Larrabetzuko alkate-

ak.

Juan Jose Gonzalezek diseinatu du bandera; horretarako, uriko armarrarian oinarritu da. Bandera zuria da eta haren gainean gurutze berde bat dago. Gurutzeko goiko laurdenean hirusta-gurutze gorri bat dauka, eta beste hirusta-gurutze urdin bat beheko laurdenean. "Larrabetzu bere sustraiekin eta ezaugarriekin identifikatzen du banderak. Eta nondik nora gatozen gogoratuko digu etorkizunean", esan digu Ordeñanak.

Olinoa biltzeko zerbitzua, Mankomunitatearen eskutik

Etxeetan landare-olioaren %70 kontsumitzen da eta olio hori gehiena sukaltarritik botatzen da, ingurumenari kalte eginez. Horrela, bada, frijitzeko erabilitako olio oso kutsakorra da eta arratoiek jango dute, estolda-sarera botaz gero. Halaber, ura kutsatu eta hondakin-uren arazketa garestitu egiten da.

Datu horiek kontuan hartuta, etxean erabilitako olio biltzeko zerbitzua eskainiko du Mankomunitateak urtarritik aurrera. Olio hori tratamendu-planta batean birziklatuko dute. Zerbitzua doan da eta helburu bi ditu: alde batetik, isurketak saihestea eta beste alde batetik, olio balioztatzea. Izan ere, olio birziklatu eta erregai ekologikoa bihurtuko da: biodiesel, hain zuzen ere. Biodiesela erregai biodegradagarria da: gasolinaren antzekoa, baina ez hain kutsakorra eta motorren balio-bizitza luzatzen du.

Olio biltzeko hilen hirugarren astelehenetan izango da Larrabetzun eta Lezaman, hilen hirugarren asteartean Derion, hilen hirugarren asteazkenean Sondikan, hilen hirugarren ostegunean Loian eta hilen hirugarren ostiralean Zamudion.

Beste alde batetik, Mankomunitateak litro biko bidaiak banatuko ditu, olio biltzeko eroso eta garbiago egiteko. Bidai horiek doan izango dira.

Laster informazio-foiletoak banatuko dira eta olio biltzeko lekuak zehaztuko dira bertan.

Mikel Urdangarin, kantautorea

“Bizitzako gauzarik ederrenak eta ankerrenak gizarte-harremanetan daude”

Urte biko atsedenaldiaren ostean, lan berria kaleratu du Mikel Urdangarin kantautorea. *Dana* bere zazpigarren lana aurkeztu zigun Euskararen Egunean. Hitzordua Sondikako auditorioan izan genuen.



Testua: Itxaso Marina

Txorierriera etortzeko gogoia omen zenuen...

Gutxitan ibili naizelako bertotik. Oso kontzertu polita irten da, oso gustura aritu naiz.

Zer da *Dana* zuretzat?

Disko bat, batez ere. Eta disko bat zure gogoaren isla da. Baina kontua da oso zaila dela gogo hori disko batean islatzea... Azken urte bi hauetan barruan pilatu zaizkidan sentazioak eta emozioak bertan adierazten saiatu naiz.

Eta etapa berria da? Izan ere, lan elektrokenikoagoa da, erritmo handiagokoa eta diskoetxe berriarekin grabatu duzu...

Beno, egunero hasten ditugu etapa berriak. Gauzak momentuan bizi izaten ditut musikan, sakon eta sendo, eta horixe egin dut azken diskoan. Sonoritate berria izan dezaake, beharbada, baina ez dakit zein punturaino... Neure burua oso argi identifikatzen dut diskoan eta denborak aurrera egin ahala ikusiko da etapa berria den ala ez.

Pertsonen arteko harremanetan topatzen duzu inspirazio-iturria...

Izan ere, bertan ematen dira bizitzako gau-

“Publikoa aurrean izatea, ni entzuteko prest, gauza handia da niretzat”

zarik ederrenak eta ankerrenak. Nik dena topatzen dut gizarte-harremanetan, bai kontatzeko, bai kantatzeko... Zentzu horretan, nahiko humanista naizela uste dut. Abestien atzean beti azaltzen dira maitasuna edo desamodioa eta zerbait denuntziatu egin behar denean, pertsonen historien bitartez ere egiten dut.

Kirmen Uribek letra jarri dizkio diskoko abesti biri...

Musikariok oso jeloskorrak gara gure lanarekin: zeinek sartuko du eskua eta zeinek ez... Letrekin ziur egon nahi dut eta, horretarako, zuk zeuk egitea da errazena. Baina letra horiek zeuk egiten ez dituzunean, ariketa berezia egin behar duzu: konfiantza izan. Eta niri Kirmenekin beti ateratzen zait ondo, asko gustatzen zait bere idazteko era eta oso hurbil ikusten dut nigandik.

Adierazpen askatasunari idatzi diozu kanta bat...

Kanta horretan ez dut gauza berririk esaten, baina ez da ahaztu behar gizarte konplexu batean bizi garela. Errealitatea hurrengo hau da: euskaraz ezin da erdaraz moduan bizi eta gure hizkuntza egoera delikatu dago. Eta gaur egun gertatzen diren gauza asko ez lirateke gertatu behar... Erdarak duen duintasun bera euskararentzat ere eskatzen dut, besterik ez. Kantu hori sasoi konkretu batean idatzi nuen –Egunkariaren itxiera, atxiloketak, tratatu txarren salaketak- eta amorrutik ateratzen.

Buru-belarri zabiltza birarekin. Zelan hartu du publikoak *Dana*?

Nahiko ondo, orokorrean. Bederatzi urte daramatzat musika munduan eta publikoa aurrean izatea, ni entzuteko prest, gauza handia da niretzat. Eta gainera, kantu berriak aurkezten nabilela kontuan hartuta, izan ere abesti zaharrak bazterrean utzi ditut apur bat... Jendeak ondo hartu du diskoa zuzeneko emanaldietan eta hori ez da lan erreza.

“Ezin da konparatu emoten dozuna jasoten dozunagaz”

Nerea Arregi zamudioztar gaztea Nikaraguara bolondres joan zan, esperientzia aberasgarri baten bila. Eskaini eban guztiaren truke, bertakoen maitasuna zein mirespena jaso izan dau.

Testua: Maitane Urrutikoetxea



Kaleko umeakaz ibili da Nerea Nikaraguan

Nikaraguara bolondres joateko aukerea eskura etorri jatzun ala zuk zeuk bilatu zenduan?

Lagun batek esan eustan urtero bolondres programa bat egoala, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta. Latino Amerikara kooperante joateko ideia gustatu jatan eta, beste barik, apuntatu egin nintzan.

Zer nolako prozesua jarraitu behar dabe hautagaiek?

Lehenik eta behin, curriculumuma agindu behar dozu. Erakundeak zugek interesa izan ezker, eurek ezarritako proba batzuk egiten jarraituko dozu. Ondoren, Barrian antolatzen dabezan jardunaldi batzuetara joan beharra daukazu eta horrek be aurrera ez jarraitzeko aukerak mugatu leikez.

Behin aukeratua izanda, hitzaldi orokorrak dagoz, lekuaren zein eginkizunen inguruko informazio orokorra jaso ahal izateko.

Zein izan zan zure betebeharra bertan?

Umeen hezitzaile joan nintzan: eurakaz egon eta eurak laguntzea genduan helburu nagusi. Idazten eta irakurtzen irakasteaz ganera, orduak emoten genduzan jolasten. Urteerak be egin genduzan.

Eginkizunen garapena laburki...

Laguntasuna emotea egunez egun, aurrera egin ahal dabela sinistuerazoz. Izan be daben etsipena oso nabaria da. Baina batez be, maitasunezko eten bako hartuemonan izatea egunerokotasunean.

Horreek danak aurrera erodateko beharrezko alde aurretiko prestaketarik?

Umeakaz egoten jakin behar da. Ganera, kaleko umeakaz zabilz bertan eta ez da dirudien bezain erreza. Momentu txarrak bizitzen dira bertan eta jakin behar da aurrera egiten.

Emondakoa baino gehiago jaso dozu?

Bai, askoz gehiago. Daben guztia emoten deutsue. Ezin da konparatu emoten dozuna jasoten dozunagaz.

Bertako baliabide eskasiari urtenbidea emoteko zure proposamena...

Kanpo-zorren desagertzea, esaterako. Horreri esker, pobrezian murgilduta dago-

“Kanpo-zorra desagertu beharko zan, bertako baliabide eskasiari urtenbidea emoteko”

zan hainbat herri aurrera egiteko ez dabelako trabarik eukiko. Herri horreek dabezan muga nagusiak herri boteretsuek eta aberatsek ezarri deutsiez.

Zelan laburbilduko zenduan bertan igerotako egonaldia?

Zoragarria.

Zein parekotasun eta diferentzia dagoz Euskal Herria eta Nikaraguaren artean?

Ikusi dodanaren arabera, parekotasun gutxi; erabat ez bardinak gara. Bat esatearren, janariari emoten deutsien garrantzi eskasa aitatuko neuke. Ez dakit hori daben baliabide urritasunari zor jakon, baliteke halan izatea... Beste alde batetik, kaleko umeen egoitzan egon nazenez, ez dot bertako ohituren barri izan.

Urte Zaharra, Urte Barria

Luze idatzi da euskal ohituren ganean. Atxina, Eguberria be era berezian ospatuten eben baserrietan eta idazleek hainbat usadio batu dabez liburuetan. Juan Garmendia Larrañaga ikertzaileak jasotako Urtezaharraren inguruko ohitura batzuk bildu doguz ondorengo lerrootan.

Aspaldian, Soroeta Handi baserria egoan Lasarten eta bertako Zuaznabar anaiek adarra joteko ohiturea eben Urtezahar egunean. Anaietako batek adarra hiru aldiz motzean jotzen eban, kale aldera begira. Eta ondoren, beste bat luzeagoa egiten eban, festa giroko txalaparta hasiko zala adieraziz. Anaiek txalaparta baserri atarian jotzen eban eta, era horretan, Urtezaharrari agur esan eta Urtebarriari ongi etorria emoten eutsien. Tolosarraren arabera, sua oso elementu garrantzitsua izan ohi da gau horretan. Arabako herri askotan, esate baterako, zahagi zaharrak erretzen ziran, "erre puierre" oihukatuz. Horrezaz ganera, tximinia garbituten zan afaldu baino lehen, eta kedarra baratxuri landareari botaten eutsien. Ohiturea hori nahiko ezaguna zan Nafarroa aldean, batez be. Beste alde batetik, herri batzuetan ezkilak joz agurtuten eben Urtebarria. Nafarroako Gorritin herrian, adibidez, ezkilak jotzen hasten ziran gauerdian, goizaldera arte. Kanpai hotsak isildu aurretik, Azpirotzekoak eskean joaten ziran Gorritiraino, hurrengo abesti hau kanta-

"Sentitzen zaitut,
sentitzen
ari zarela jeikitzen,
zure gerriko giltza
soiñuak
ementxen ditut aditzen".

Arabako Aramaio herrian, barriz, arratsaldean ibiltzen ziran eskean:

"Urte berri, daukenak
eztaukari, nik eztaukat eta niri
aginaldo.
Telle montaña
zazpi intxaur eta zortzi



gaztaña
aren gañian launa sagar
nik bai agiñek berdin
xamar".

Urak be garrantzia izaten eban Urtebarri egunean. Zuhatzun herriko gazteak mutil nagusien etxera joaten ziran eskean eta txarroan herriko iturritik hartutako "ur barria" eroaten eban. Lekunberrin be iturriko ura hartu eta etxez etxe banatuten eban, abestuz:

"Urteberri egun ona,
egun onaren señailea
emen dakargu ur berria,
urte berri egun ona.
Or goien, goien elorri
ondoan jo ta erori,
etxe ontako etxeoandriak
Amabirjina dirudi".





Lezama

Abenduaren 22a, eguna

Olentzero jaia, eskolan. Eskola eta Gurasoen Elkartearen eskutik.

Abenduaren 24a, zapatua

17:30: Olentzero jaia. Kalejira eta oparien banaketa, plazan eta pilotalekuan. Gurutze dantza taldea, Zorritzetan eus-kara elkartearen eta Udalaren eskutik.

Abenduaren 26tik 28ra

Gabonetako irteerak, ume eta gazteei zuzenduta.

Abenduaren 28a, eguaztena

17:30: Irteera, Euskal Selekzioaren partidura, San Mamesen.

Sondika

Abenduaren 23a, barikua

18:00-20:00: Fimo lantegia, gaztetxean.

19:30: Gabonetako musika emanaldia, Kultur Etxean, Pentagrama Sondikako kultur elkartearen eskutik.

Abenduaren 24a, zapatua

17:00: Olentzero eta Belen Biziduna, Udaletxean.

Abenduaren 26a, astelehena

15:30: Irteera, Barakaldoko Gabonetako haur-parkera; Ludoteka I eta IIk antolatua.

18:00-20:00: Mahai-futbol Txapelketa, gaztetxean.

Abenduaren 27a, martitzena

18:00-20:00: Kopau lantegia eta luntxa,

gaztetxean.

18:00: *Madagaskar* filma, Kultur Etxean.

Abenduaren 28ra arte

11:00-14:00: Umeentzako tailerrak: elur-bolak, txotxongiloak..., Kultur Etxeko ludoteka I eta II.

Irteera, Euskal Selekzioaren partidura, San Mamesen; Gaztetxeak antolatua.

Abenduaren 28a, eguaztena

17:00: *Tira Hariari* dantza ekitaldia, Kultur Etxean. Dinamika eta Eletiope konpainiaren eskutik.

Abenduaren 29a, eguna

12:00-14:00 eta 16:00-19:00: Sondikako Txiki Eguna: jolasak, tailerrak..., Goronda Beko kiroldegian.

18:00-20:00: Festarako makillaje lantegia, gaztetxean.

Abenduaren 30era arte

"Sondikako Udala" Gabonetako Postalen XIV. Lehiaketaren erakusketa, erakusketa aretoan.

Abenduaren 30, barikua

12:00-14:00 eta 16:00-19:00: Sondikako Txiki Eguna: jolasak, tailerrak..., Goronda Beko kiroldegian.

19:30: Kontzertua, Mr Jam. Gaztetxean.

Urtarrilak 2a, astelehena

18:00: Ping-pong Txapelketa, gaztetxean.

Urtarrilaren 3a, martitzena

15:30: Irteera, Gasteizko Izotz Jauregira; Ludoteka IIk eta gaztetxeak antolatua.

16:00: Irteera, Barakaldoko Camelot parkera; Ludoteka Ik antolatua.

Urtarrilak 4a, eguaztena

18:00-20:00: Ile-luzapen eta rasta tailerra, gaztetxean.

Larrabetzu

Abenduaren 20ra arte

Euskadiko Selekzioaren partida ikusteko izen-ematea, liburutegian. Gasteiza patinatzaera joateko izen-ematea, liburutegian.

Abenduaren 22ra arte

Las mil y una noches antzezlanak ikusteko sarrerak salgai, liburutegian.

Abenduaren 23a, barikua

19:30: Etxeko Erreginak antzezlanak, Anguleri kultur etxean. Zeani taldearen eskutik.

Abenduaren 26a, astelehena

10:15: Kultur irteera, Sondikako Kultur Etxera. Barrebira antzezlanak.

Abenduaren 27a, martitzena

16:30-19:30: Ludoteka.

18:00: Herri Tropikala antzezlanak, gimnasioan. Potxin eta Patxin pailazen eskutik.

Abenduaren 28a, eguaztena

11:00: Irteera, Zamudioko Gabonetako jolas-parkera.

16:30-19:30: Imanak, ludotekan.

Abenduaren 29a, eguena

16:30-19:30: Ludoteka.

18:00: Eusko karaokea, gimnasioan.

Abenduaren 30a, barikua

16:30-19:30: Maskarak, ludotekan.

Urtarrilaren 2a, astelehena

16:30-19:30: Ludoteka.

18:00: Txilipurdi Erregea antzezlanak, gimnasioan, Panta Rhei taldearen eskutik.

Urtarrilaren 3a, martitzena

Irteera Gasteiza, patinatzaera.

16:30-19:30: Ludoteka eta Polar Express filmak.


Urtarrilaren 4a, eguaztena

16:30-19:30: Ludoteka.

18:00: Haur jaia, gimnasioan.

Urtarrilaren 5a, eguena

11:15: Irteera, Lezamako Gabonetako jolas-parkera.



Hori Baik antolatuta



Abenduaren 23a, barikua
Olentzeroren bila.

Abenduaren 24a, zapatua
Olentzero.

Abenduaren 25a, domeka
Bertso saioa.

Abenduaren 26a, astelehena
Kafe tertulia: arau subsidiarioak.

Abenduaren 27a, martitzena
15:00: Irteera, Gabonetako haur-parkera. Plazan.

Abenduaren 29a, eguena
Folk kontzertua.

Abenduaren 30a, barikua
Nagusientzako antzerkia.

Abenduaren 31, zapatua
Kotilioia: Euskal Piratak.

Urtarrilaren 2a, astelehena
Ciudad de Dios filma.

Urtarrilaren 3a, martitzena
Hitzaldia: Euskalduna.

Urtarrilaren 5a, eguena
Sorgintxulo gaztetxearen liburuaren aurkezpena eta Gaubela Hori Bain.

Urtarrilaren 6a, barikua
Umeentzako antzerkia eta txokolatada.

Urtarrilaren 7a, zapatua
Auzoz auzo.
Kontzertua: Noizean Behin eta Klortita.

Loiu

Abenduaren 24a, zapatua

17:00: Olentzero, ganadu azokan.

17:30: Gabon kantak eta oparien banaketa, pilotalekuan.

Abenduaren 26a, astelehena

11:00-12:00: Idazketa tailerra, liburute-gian. 6tik 12 urtera bitarteko umeentzat.

12:00-13:00: Zesta-punta ikastaroa, Zabalotxeko udal pilotalekuan. 8 urtetik gorako neska-mutilentzat.



17:00: Oporretan antzezlan, Kultur Etxeko gimnasioan, Adur Pailazoak taldearen eskutik.

Abenduaren 27a, martitzena

11:00-12:00: Idazketa tailerra, liburute-gian. 6tik 12 urtera bitarteko umeentzat.

17:00: "Loiuko Udala" Gabonetako Postalen XII. Lehiaketaren sari banaketa.

18:00: Antzerkia, pilotalekuan. Hartz Muga taldearen eskutik.

18:00-19:30: "Loiuko Udala" II. Xake Torneo. 10etik 16 urtera bitarteko gazteentzat.

Abenduaren 27tik urtarrilaren 4ra bitartean

Gabonetako postalen erakusketa, Kultur Etxean.

Abenduaren 28a, eguaztena

11:00-12:00: Idazketa tailerra, liburute-gian. 6tik 12 urtera bitarteko umeentzat.

12:00-13:00: Zesta-punta ikastaroa, Zaba-

loetxeko udal pilotalekuan. 8 urtetik gorako neska-mutilentzat.

Arrastiz: Umeentzako Azoka Txikia, pilotalekuan.

Abenduaren 29a, eguena

Goizez: Irteera, Gabonetako jolas-parke-
ra.

17:00: Eriz Magoa, Kultur Etxeko gimna-
sioan.

18:00-19:30: "Loiuko Udala" II. Xake Torneo. 10etik 16 urtera bitarteko gazte-
entzat.

Abenduaren 30a, barikua

12:00-13:00: Zesta-punta ikastaroa, Zaba-
loetxeko udal pilotalekuan. 8 urtetik go-
rako neska-mutilentzat.

17:00: Txotxongiloak, gimnasioan, Rosa
M^a Martinezen eskutik.

20:00: XX. Txori Herri Gabon Kanten
Emanaldia, San Pedro elizan.

Urtarrilaren 2a, astelehena

11:00-14:00: Ilustrazio tailerra, liburute-
gian. 6tik 12 urtera bitarteko umeentzat.

12:00-13:00: Zesta-punta ikastaroa, Zabal-
otxeko udal pilotalekuan. 8 urtetik go-
rako neska-mutilentzat.

17:00: *Josetxo eta Ortzadarra* antzezlan, Kultur Etxeko gimnasioan. Antzez-kizu-
na Giñol Taldearen eskutik.

Urtarrilaren 3a, martitzena

11:00-12:00: Ilustrazio tailerra, liburute-
gian. 6tik 12 urtera bitarteko umeentzat.

11:00-14:00 eta 16:00-19:00: Haurrentzako
jolas-parkea, pilotalekuan.

19:00: Trikiti emanaldia, Kultur Etxeko
gimnasioan, Udal tailerreko ikasleen
eskutik.



Urtarrilaren 4a, eguaztena

11:00-12:00: Ilustrazio tailerra, liburute-
gian. 6tik 12 urtera bitarteko umeentzat.

12:00-13:00: Zesta-punta ikastaroa, Zabal-
otxeko udal pilotalekuan. 8 urtetik go-
rako neska-mutilentzat.

17:00: Txotxongiloak, Behi Bi's taldeare-
kin.

Zamudio

Abenduaren 24a, barikua

10:00: Plater-tiro saioa, Teknologia
Parkeko tiro zelaian. Txoriherri Ehiza
eta Arrantza Elkartek antolatua.

Olentzero. Zehaztasunak ludotekan,
abenduaren 22an eta 23an.

Abenduaren 26tik 30era bitartean

11:30-13:30a eta 16:30-20:00: Gabone-
tako haur-parkea, kiroldegian.

Abenduaren 26a, astelehena

09:30: Kultur irteera, Sondikako Kultur
Etxera. Barrebira antzezlan.

Abenduaren 30a, barikua

19:00: Olentzerori gutunen sari bana-
keta eta Elvi sabelhiztuna, kiroldegian.
Lagatzuk antolatuta.

Abenduaren 31a, zapatua

Egun osoko irteera: Gorbeira, Ubi-
detik; Arroeta mendi taldearen esku-
tik.

10:00: Plater-tiro saioa, Teknologia
Parkeko tiro zelaian. Txoriherri Ehiza
eta Arrantza Elkartek antolatua.

01:00-05:00: Urte amaierako kotiloia,
kiroldegian. Musika zuzenean, dan-
tzaldia, dibertsioa...

Urtarrilaren 3a, martitzena

09:30: Irteera, Barakaldoko Gabone-
tako haur-parkera.

Urtarrilaren 4a, eguaztena

11:00: Irteera, Lezamako Gabonetako
haur-parkera.

15:00: Irteera, zinemara. Olentzero eta
Subilaren lapurreta filma.

Derio

Abenduaren 23a, barikua

18:00: Uribe Kosta Torneoa, pilotalekuan. Atxiki pilota taldearen eskutik. Areto-futbol Triangeluar Mistoa, kiroldegian. Pozgarri FSTren eskutik.

Abenduaren 24a, zapatua

11:00-13:00: Olentzero tailerra, ludotekan. Umeentzako kirola, kiroldegian.
17:00: Olentzero, Udaletxean. Ipar-Alde abesbatza eta Tximintx euskara elkartearen eskutik.

Abenduaren 26a, astelehena

Goizez: kultur irteera, Sondikako Kultur Etxera. Ludotekak antolatua.
Arrastiz: Irteera, zinemara. Ludotekak antolatua.

Abenduaren 27a, martitzena

11:00-13:00: Ludomakillaje tailerra, ludotekan.

Abenduaren 28a, eguaztena

Goizez: Antzerkia eta irteera, BECera. Ludotekak antolatua.
18:00: Dantza omenaldia. Jai nagusia, Nagusien Etxean.
20:30: Irteera, Euskal Selektzioaren partidura, San Mamesen.

Abenduaren 29, eguena

11:00-13:00: apar tailerra, ludotekan.
17:00: "Ezagutu pilota" ekitaldia, pilotalekuan eta erabilera anitzeko aretoan. Mahai-ingurua, pilotako profesionalekin. Atxiki pilota taldearen eskutik.

Abenduaren 30, barikua

11:00-13:00: *Piratak* antzezlan, kiroldegian eta Ludogazte antzerkia. Ludotekak antolatua.

Abenduaren 31a, zapatua

11:00-13:00: Umeentzako kirola, kiroldegian. Ludotekak antolatua.

Urtarrilaren 2tik 8ra

"Antzinako denda" erakusketa, Goiko kalean. Txori Berri kultur elkartearen eskutik.



Urtarrilaren 3a, martitzena

Goizez: Irteera, patinatzer. Ludotekak antolatua.

Urtarrilaren 4a, eguaztena

20:00: Kultur irteera, Arriaga antzokira. Las mil y una noches, Els Comediants taldearen eskutik. Sarrerak salgai, Udaletxean.

Urtarrilaren 5a, eguena

11:00-13:00: Erregeen tailerra, ludotekan.
18:00: Erregeen kabalgata, elizan.
19:30: Gabonetako kantaldia, elizan. Ipar-Alde abesbatzaren eskutik.

Urtarrilaren 6a, barikua

12:30: Gabonetako kantaldia, elizan. Ipar-Alde abesbatzaren eskutik.

Urtarrilaren 7a, zapatua

10:00: Futbol Txiki Eskolarra eta Futbol 7, kiroldegian eta futbol zelaian. Arteaga FSTren eskutik.
19:00: Las azarosas andanzas de dos picarras pellejas antzezlan, institutuan. Sutondoan elkartearen eskutik.

Urtarrilaren 8a, domeka

11:00: Aldi Bereko IV. Xakea, kiroldegian. Derioko Xake Taldearen eskutik.
12:00: Dantza agerraldia, kiroldegian. Lainomendi eta Txorierriko taldeen eskutik.

Urtarrilaren 8ra arte

Derioko II. Argazki Lehiaketaren erakusketa, Larrabarri baserrian. Derioko argazki taldearen eskutik.

Urtarrilaren 10era arte

Saharako karabana: azukrea, oliotan eginitako atuna eta konpresak batzeko kanpaina, Udaletxean, Gaztelekuan eta Mafren.

Urtarrilaren 13a, barikua

19:00: Beste aukerak mundua ikusteko: Erdialdeko eta Hego Amerika, auto stoppez hitzaldia, Larrabarri baserrian. Eneko Tejadaren eskutik.

Urtarrilaren 16a, astelehena

20:00: "Komiki baten sorkuntza" hitzaldia, Unai Busturiaren eskutik. Larrabarri baserrian, Tximintxek antolatuta.

Urtarrilaren 20a, barikua

19:00: Beste aukerak mundua ikusteko: Laos eta Tailandia, bizikletaz hitzaldia, Larrabarri baserrian. Eneko Tejadaren eskutik.

Urtarrilaren 27a, barikua

19:00: Beste aukerak mundua ikusteko: Palestina eta Israelera, boluntario hitzaldia, Larrabarri baserrian. Eneko Tejadaren eskutik.

Erosotasuna bolantean

Eguzki eta bero lar gehiegia aurre egin behar ditugun arazo batzuetarikoak dira, autoan ibiltzen garenean. *Solar Check* babes xaflek behar hori errazten digute. Roberto Olarza Glas Control enpresako gerenteak azalpenak eman dizkigu.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina



Zer da Solar Check eguzkitik babesteko xafla?

Xafla horiek autoaren kristalei ezartzen zaizkie eta arazo batzuk gutxitzen lagunduko digute. Eguzkitik babesteko jar daitezke, baita argi gehiegia ekiditeko, autoaren barruan intimitatea izateko ala autoa dekoratzeko ere. Poliesterrezko laminak dira eta 18 mota daude aukeran: metalizatuak, tindatuak, mistoak, koloredunak... Xaflak edozein autori jar dakizkioke.

Eta zein ezberdintasun dago haien artean?

Erabiltzaileak ekidin nahi duen arazoa kontuan hartu behar da, bata zein bestea jartzeko orduan: adibidez, batzuek argi gehiago pasatzen uzten dute eta beste batzuek gutxiago. Eta ez dute iraupen bera: metalizatuak denbora gehiago irauten dute eta izatez, gidariari betiko bermea ematen diogu, horiek aukeratuz gero.

Beste alde batetik, xaflek proba batzuk gainditu ondoren, Industria Ministerioak homologazioa ematen die. Horrezaz gainera, izenpetu behar dira, marka kezenezina erabilita. Arautegi europarrak xaflak gidari eta gidakidearen atzeko kristaletan baino

“Eguzkitik eta berotik babesten gaituzte, erabateko ikusgaitasuna emanez. Era berean, izpi ultramoreen erradiazioa %98 gutxitzen dute”

ezin direla jarri dio.

Zeintzuk dira euren abantailak?

Lehenengo eta behin, eguzkitik babesten gaituzte, erabateko ikusgaitasuna emanez. Intimitatea lortzen dugu eta istripurik izanez gero, kristalak seguruagoak dira, beira laminari itsatsita gelditu eta ez delako printzarik jaurtitzen. Beroa gutxitzen dute eta autoreen bat argi luzeak jarrita atzetik etortzen bazaigu, itsualdia ekiditen digute. Halaber, izpi ultramoreak %98tan gutxitzen dute eta horregatik, larruazaleko arazoak dituzten pertsonentzat gomendagarriak dira. Autoaren tapizeria ere babesten dute.

Zainketa berezirik behar dute?

Ez, kristal arruntak bezala garbitu behar dira. Hori bai, ezin da harraskagailurik erabili, kristalak apur genitzakeelako.

Garestiak dira?

Ez, auto normal batean jartzeak 180 bat euro balio du. Baina, noski, faktore batzuk kontuan hartu behar dira, presupuestoa egiteko orduan: xafla mota, emango digun zerbitzua, ezarketaren konplexutasuna...

Eskaera handirik dago?

Bai, urtean zehar auto pilo bat egiten dugu, bai partikularrentzat, bai kontzesionarioetarako eta garajeetarako. Gure instalatzaileak etxeokak dira eta erabat jantzita daude behar horretan, hainbat ikastaro egiten dituztelako. Eta erabiltzaileari dago-kionez, era guztietako bezeroak ditugula esango nuke. Hasiera batean, tuning modan murgilduta daudenek zerbitzua eskatzen zuten, baina joera aldatuz joan da azken urteotan. Auto monobolumen eta mendi-ibilgailu asko atera dira merkatura eta gidariak beste zerbitzu batzuen bila etortzen dira gurenera: seme-alabak eguzkitik babestea eta beroa gutxitzea, gehienbat



Iratxe Orue, Tanzania



Lurdes




Munduari klik! eginez

Sondika Goiri argazki taldeak erakusketa ederra antolatu eban azaroan. Erakusketea Sondikako liburutegiko erakusketa-aretoan jarri zan eta hainbat bidaiatan ataratako argazkiak aurkeztu ebezan bertan. Sondika Goirikoek erakusketa bi antolatzen dabez urtean zehar: Txorierriko argazki rallya eta ikastaro baten ganekoa. Horrezaz ganera, urteerak be egiten dabez Udaleko Kultur Sailekoakaz batera.


Testua: Amagoia Guezuraga



Iratxe Orue, Tanzania



Amagoia Guezuraga, Zamudio



Igor Garcia, Galizia



Amagoia Guezuraga, "Mayflower II"



Txerra, Bilbao



Igor Garcia, Galizia



Lezamako atzo, gaur

Sabiñe, Itsaso eta Kattalin. Hiru belaunaldi, hiru abeslari. Hirurak dira “a-tzo”, gurasoengandik jaso dabezalako kanturako zaletasuna eta gaitasuna. Hirurak dira “gaur”, barru-barrutik eta ederto kantetan dabelako. Hirurak dira “bihar”, urte askotan horretan jarraituko dabelako, kantetan eta euren zaletasuna kontajietan.

Testua eta argazkiak: Pospolin

Itsaso Arrieta

Irakaslea. Santutxun jaio eta Lezaman bizi da. 39 urte eta alaba biren ama. Kontraltorearen ahots sendoa eta belarri zorrotza.

Zer da kantua edo musika kantatua, zuretzat?

Nire bizitzako egoera guztiak eta sentimenduak kanporatuteko bidea da.

Norengandik jatortzu zaletasun hori?

Gurasoengandik. Familiagaz gagozanean zeozer ospatuten, edo baita lagun artean be, beti kantetan dogu.

Badaukazu berezian gustetan jatzun kanturen bat?

Asko daukadaz. Bat esatekotan, asko gustatuz aparte nire bizitzako sasoi jakin baten oso esanguratsua dalako, esango neuskizu *Txori erresiñola*. Hamazortzi urtegaz Iparraldera joaten hasi nintzanean, askotan kantetan genduan bertako lagunakaz. Orduan, abesti hori kantetan dodanean, jente eta une konkretuak gogoratuten dodaz... Kanta bakotxak bere historia dauka, non ikasi dozun, nork irakatsi deutsun... Tontokeria da baina nik beti esaten dot pertsona bat kantuz ezagutu badot, betirako laguna dodala.

Badaukazu buruan gorrotatu zeinken abestiren bat?

Badaukat mekanismo antzeko bat, ia-ia inkontzientea, eta abesti batzuk entzuten dodazenean nire burua zarratu egiten da. Hamar mila biderrez entzun arren ez dot

atendiduten, ez jat interesetan, eta ez dot ikasten. Beste batzutan, barriz, nire filtroak guztiz zabalik dagoz. Urrunean entzuten badot tonadilla bat, musika tipo bat geurearen antza daukana... tak! geratu egiten jat.

Gehien gustetan jatzun abeslaria?

Gehien ez neuke inor esango. Behar bada Niko Etxart asko, tinbre berezia daukalako, barrutik kantetan daukalako. Benito be asko gustetan jat... Eta Pierre Paul Berzaitz, Pantxo eta Peio, Gorka Knor, Iñaki Eizmendi, Mikel Laboa...

Gitxien?

Jabier Muguruza esango neuke, baina musika estiloagaitik behar bada.

Musika zalea izateaz ganera, kantu-irakasle eta musika-pedagogoa zara. Noiz hasi zinan?

Aspaldian, 1989ko kantu txapelketaren ostean. Labayrun nenbilen ikasketak amaituten eta Asier Astigarragak eta Adolfok-eta ezagutu ninduen. Konturatu ziran kantua neugaz doala, etorten jatanean kantau egiten dodala barruan daukadalako; eta gainera kantu txapelketa irabazi nebenez,


“Herriak badaukaz hainbat umeentzako kantu eta gizaldiz-gizaldi iraun badabe umeengan eragina dabelako da”

erabagi eben euskal kantuen ganeko tailerra antolatutea umeakaz. Herri mailan be holango tailerrak eskatuten hasi ziran. Gero, ez bakarrik umeentzako, irakasleentzako be beste tailer bat diseinatu neban, umearen garapenerako sasoi bakotxean zeintzuk diran kantarik aproposenak eta zelango garrantzia daukien kantu tradizionalak ikasteko. Ganera, *Katuen Testamentua* diskorako materiala batuten hasi ginan sasoi horretan nire senarra eta biok. Beti pentsatu dot herriak badaukazala hainbat eta hainbat umeentzako kantu, oso egokiak umeen etapa guztietarako, eta baztertuta geunkazala, Imanol Urbietaren modernoak sartu ziralako (Pintxo, Uztaila gora-gora...). Askotan esaten dot orain arte gizaldiz gizaldi iraun badabe, zeozergaitik izango dala, ezta? Ba, horrek eragina daukalako umeengan. Horregaitik proposatu neban Labayrun material hori batu egin behar zala eta barriro be herriari emon. Hasieran ez eban inork horretan sinisten, baina lan asko eta disgustu batzuren ostean, hor agertu zan diskoa Oskorri taldearen eskutik. Horren ganean diseinatu neban beste ikastaro bat eta oso arrakastatsua da oraindino be, eta horretan nabil.

Zein mezu zabalduko zeunzkie gaurko gazteei?

Ez baztertuteko norbere herriko tradizioa, bai musika aldetik bai beste alde guztietatik be. Azken baten, gure susterrak gure erroak dirala eta pertsona guztiok ondo hasteko beharrezkoa dogula gure kultura.

lamiak: eta bihar



Kattalin Zarate

Ikaslea. Lezaman jaio eta bertan bizi da. 8 urte. LHko 3 mailakoa. Aingeruen ahotsa, afizinoia eta afinazinoa. Gure ume eta gazteentzako "musika eredu".

Nork irakatsi deustu kantetan?

Amak.

Noiz kantetan dozu gehien?

Edozein momentutan. Behar bada, kotxean goazenean gehien ... Ohean neu bakarrik nagoanean be bai...

Zein da gehien gustetan jatzun kan-

tua? Eta gitxien?

Ez dakit. Atzo egon nintzan kantetan... *Euskaldun Makila*. Danak gustetan jataz.

Nor da gehien gustetan jatzun abeslaria?

... Ken Zazpi eta beste batzuk...

Kantatuko deustazu bat, mesedez?

"Argi zariak argitzen dizu gau oso erdi-erdian. Ene maitia ikusi nizun dantzan plazaren erdian. Izar batek bezala argitzen zizun beste ororen artian..."

Handia zarenean, zer gura dozu izan?

Andereno.

Eta zergaitik ez abeslari bikaina?

Sabiñe Etxebarria

Baserritarra. Lezaman jaio eta bertan bizi da. 92 urte. Gerra denboran "gorrien" aldekoa eta "gorriak" pasatutakoa. Ahots garbia eta indartsua. Umore ona eta kanturako zaletasun itzela.

Nondik jatortzuz kanturako zaletasun eta indar horreek?

Batez be aite zan kantu zalea. Etxean juntetan ginanean, beti kanteu egiten genduan. Gero domekatan eta, lagunakaz juntetan ginanean be bai. Izekotza auzokoakaz kanteu eta jantzan egiten genduan. Motroatako Modestaren aitek

gitarrea eroaten euskun. Ontxe be, Gabonatan eta holan, beti kantetan dogu. Neure seme-alabei, eta gero neure bilobei be, asko kanteu deusiet txikitan. Gauza polita da kantetia.

Zelango kantu klaseak kantetan dozuz? Kanteuko zeunke bateren bat oraintxe?

Hau zanko, hau mando, Amama koitadea, Urra txikitin Bilbora noa...

"Basotxoritxu mustur luzia ezsun(?) nor-nork hire bila; aingerutxurik bihar ezkeror horra hor nire mutila. (...)



Kolore guztiak batuz, irudimena askatuz

Txinatik etorritako printzesa ipuina aurkeztu ziguten iaz, eta beste ipuin birekin etorri zaizkigu orain. Lezamako Marga Martinek eta Josu Garciak Ostadarreko kolore guztiak eta No solo las alas sirven para volar ipuinak argitaratu berri dituzte. Ipuinok liburudendetan daude salgai eta El Corte Inglesen ere izango dira laster.



Testua: Itxaso Marina / Irudiak: Ines Furlanetto

Semearen gogoeta islatu duzue Ostadarreko kolore guztiak ipuinean...

Bai, bera da ipuinaren kontalaria eta eskolan izandako esperientzia kontatzen du. Seme-alaben eskola oso txikia da, hala ere, oso ume ezberdinak daude bertan; ezberdinak, baina berdinak. Izan ere, azalaren kolorea eta kultura ezberdinak izan arren, berdinak dira ume horiek guztiak. Batzen gaituena bereizten gaituena baino inportanteagoa dela adieraztea du helburu ipuinak. Pertsonaia gehienak benetakoak dira.

Kontu handiegiz ibiltzen gara hitz batzuk erabiltzeko orduan...

Lagun bat "morenitoa" zela esanez, etorri zitzaigun behin alaba etxera. Guk lagun hori beltza zela azaldu genion, beltz hitzak ez zuela esanahi txarrik. Eta noski, "morenitoa" ez da ume batek erabiliko lukeen hitza. Argi dago pertsona nagusi bati entzundakoa dela. Beste alde batetik, alabari "txinita" esateko ohitura du pertsona batek. Era atseginean esaten diola badakigu, baina alabari ez zaio batere gustatzen. Txinako umeak dira, ez "txinitoak"; ume beltzak dira, ez "morenitoak"... Eta guztiek izena dute, gainera. Zuzenegi jokatzeko saiatzen gara batzuetan, eta lortzen duguna kontrakoa izaten da: hitz batzuk iraintzat hartu eta



Batzen gaituena bereizten gaituena baino inportanteagoa da, Margaren esanetan

baztertzen baditugu, arrazen arteko ezberdintasunak daudela barneratuko dituzte umeek. Intentzioa –txarra ala onak– ematen diegu hitzei.

Ipuina umeentzat izan arren, gurasoek ere irakurri beharko lukete, beharbada...

Bai, eta irakurri ondoren, seme-alabekin aztertu ere bai. Egoera ume baten ikuspuntutik azaltzen da, eta hori guztiz lagungarria da helduontzat. Izan ere, guk baino argiago ikusten dituzte gauzak.

No solo las alas sirven para volar ipuinaren gainean arituko gara orain. Nola sortzen da proiektua?

Beno, beste ipuina 6-7 urteko umei zuzenduta dago, eta hau, berriz, haur txikiagoei. Txinako artista batek egindako irudietan oinarrituta dago. Irudiak adaptatu eta tes-

tua jarri diegu. Oso testu laburra da, izan ere, irudiei eman zaie garrantzia. Hegalek ez ezik, irudimenak ere hegaz egiteko balio duela adierazi nahi diegu umei. Gaztelaniaz atera da, baina euskarazko bertsioa egiteko asmoa dugu. Ostadarreko kolore guztiak, ordea, gaztelaniaz zein euskaraz argitaratu da.

Zuek ez zarete idazleak; hala ere, ipuinen munduak erakarri zaituzte, antza.

Izugarri gustatzen zaigu. Hasieran guretzat baino ez genuen idazten, baina egiten duguna besteei ere gustatzen zaiela ikustea... Oso inportantea da hori, benetan. Eta laugarren ipuina prestatzen gabiltza: neskato bat eta panda hartz bat izango dira protagonistak. Pertsonen eta animalien arteko leialtasuna izango da ardatz nagusia.

*"Hitz batzuk baztertuz
gero, arrazen arteko
ezberdintasunak daudela
barneratuko
dituzte umeek"*

Txakolina eta gastronomia

Azurmendi konplexua

- Azalera osoa: 4.000 m²
- Goiko azalera (Azurmendi jate-txean): 2.000 m²
- Behoko azalera (Iturrialde upeltegian): 2.000 m²
- Inbertsioa: 7.000.000 euro
- Langile kopurua: 25
- Gerentea: Saioa Goitia

Iturrialde upeltegia

- Azalera: 2.000 m²
- Altuera: 6 m
- Upel kopurua: 52
- Upelen edukiera: 5.000, 10.000 eta 15.000 litro
- Upelen materiala: Altzairu herdoilgaitza
- Iragazteko teknika: Iragazki tangentziala
- Beratzeko tresna (mazeraziorako): 2 x 9.000 kg -Vaslin Bucher
- Dolare mota: 2 dolare pneumatiko
- Dolareen edukiera: 2 x 5.000 litro -Vaslin Bucher
- Ekoizpen ahalmena (4 urte barru lortzekoa): 550.000 litro
- Etorkizuneko ekoizpen ahalmena: 1.000.000 litro
- Bisita kontzertatuak: Telefonoz deituta

Azurmendi jatetxea

- Azalera: 2.000 m²
- Jantokiak: 3 (2 ertain eta handi bat)
- Bazkalkide kopurua: 400 etik gora
- Sukaldari kopurua: 8
- Sukaldari nagusia: Eneko Atxa
- Eguneko menua: 25 euro + ardoa + BEZa
- Dastatzeko menua (16 plater): 35 euro

Txorierriko txakolinaren garrantzia, kalitatea bezala, gero eta handiagoa da urterik urte. Etxerako ekoizpen txikietatik merkaturako ekoizpenetara pasa da urte gutxian, eta erdipurdiko kalitatetik goi mailako ardo bat izateko jauzi itzela eman du tarte berean. Orain, beste pauso handi bat egin da Larrabetzun, bertan zabaldu baita txakolina ekoizteko Euskal Herriko upeltegirik handiena.



Aurrikuspeen arabera, 550.000 litro txakolin ekoiztuko da Azurmendin lau urte barru

Aurrekariak

Lehenago aipatu dugun legez, aspaldikoa da Txorierrin txakolina egiteko ohitura. Kalitateari zein kopuruari dagokienez, azken urteotan Txorierrin aurrerapauso handiak egin direlako, eta bertoko lurrak beren-beregi horretarako egokiarazi dituztelako eraiki ahal izan dute Larrabetzun txakolin-upeltegirik handiena. Eskaeraren igoerak ere izan du eragina. Horrela, bada, Larrabetzun eraiki berri den Azurmendi gunea txakolinaren egoera onaren ikur eta adierazle bihurtu da.

Azurmendi konplexua: txakolina eta gastronomia

Larrabetzun kokatu den Azurmedi konplexuak Iturrialde upeltegia eta Azurmendi jatetxea biltzen ditu bere baitan. Izan ere, Lezamatik Erletxetara goazela eskuinaldean eta mendiaren magalean ikus daitekeen egurrezko eta harrizko eraikinak jatetxeak, tabernak eta destilategiak hartzen ditu. Are gehiago: horren azpian beste horrenbesteko azalera hartzen duen upeltegia dago. Bata zein bestea handiak eta modernoak dira, eta, ezaugarri horiek direla-eta, banan-banan deskribatuko ditugu.

bat eginda



Konplexua irailean inauguratu zen. Inaugurazioan Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldu Nagusia eta Tomas Ordeñana Larrabetzuko alkatea batu ziren, besteak beste

Txakolinaren ekoizpena

Aurten hasi dira bertan txakolina egiten, eta aurreko orrialdeko taulan ikusten denez, asmoa dute ekoizpena hainbat fasetan handitzeko. Horrela, bada, lau urte barru beteko da lehenengo fasea, orduantxe lortuko baita 550.000 litro ekoiztea. Helburua betetzeko mahatsa edukitzea da kontua eta horretan dabil buru-belarri upeltegiko arduraduna. Izan ere, aurten beste hamalau hektarea ipiniko dituzte, baina oraindik, beste hamabost hektarea falta dira helburu

“Atxa etengabea dabil plater landuak sortzen betiko zaporeei eta bertoko produktuei teknika berriak ezarriz”

hura beteko bada. Gainera, kontuan hartu behar da ardo zuriaren ekoizpena oso teknikoa dela, eta, txakolinaren kasuan, Bizkaikoa izan behar duela mahatsak. Ez hori bakarrik: mahastiak hirugarren urtean hasten dira mahatsa ematen, eta hektarea bakoitzak, ondo jagonda, 9.000 eta 10.000 litro inguru ematen ditu.

Sukaldaritzaren mestizajea

Eneko Atxa sukaldari gazteak hamahiru urte dihardu goi mailako sukaldaritzan, eta, besteak beste, sukaldari gazte onenaren saria jaso zuen 2002an eta Frantziako Gourmet Akademiaren sukaldaririk onenarena ere bai, 2004an. Etengabea dabil plater landuak sortzen betiko zaporeei eta bertoko produktuei teknika berriak aplikatuz, eta egundoko arrakasta lortu du horri esker. Hurbil dugu, eta merezi du joatea probatzera.

Berbalagun, euskara erabiltzeko proiektua

Aurten, ikasturte berriagaz batera, Derioko Tximintx taldeak bultzatuta, ekimen berri bat heldu zaigu. Berbalagun du izena eta Txerra eta Joana proiektuaren arduradunengana jo dugu, horretaz gehiago jakiteko.

Testua eta argazkiak: Bestorrene



Euskaldun berriak topatzea kostatu zaie arduradunei, baina gauzak hobera doaz

Nola otu zaizue proiektu hau sortzea, ideia berria da?

Euskal Herriko hainbat herritan egiten dira honakoak, ideia ez da berria. Iaz 1.200 pertsona inguru izan dira mota honetako proiektuetan parte hartzen. Guk Derion behar berezia sumatu genuen, izan ere, biztanleen %27k ia euskalduntzat du bere burua eta euskara erabiltzeko aukera gutxi dago herrian.

Nork bultzatzen du proiektu hau?

Bultzatzaile nagusia Tximintx euskara elkarte da. Hala ere, Txorierriko AEK-k eta Txorierriko Udal Euskaltegiak ere ezinbesteko parte hartzea izan dute. Horretaz gain, Derioko Udalak hasiera-hasieratik babestu du proiektua, bai politikoki bai ekonomikoki.

Zehatz-mehatz zertan datza?

Berbalaguna zerbitzu bat da. Guk harremanetan jartzen ditugu euskaraz ondo moldatzen diren euskaldunak hain ondo molda-

“Hain ondo moldatzen ez diren euskaldunei euskara era naturalean erabiltzeko aukera ematea dugu helburu”

tzen ez direnekin. Gure asmoa da hain ondo moldatzen ez diren euskaldun horiei euskara era naturalean erabiltzeko eta ikasteko aukera ematea.

Zerbitzu honen bidez, berbalagunak (bi edo hiruko taldeak) astean behin biltzen dira bi orduz, eurek nahi duten gaiaren inguruan berba egiteko. Berbalagunak eurek nahi duten lekuan biltzen dira, eurek nahi dutena egiteko. Guk harremanetan jartzen ditugu eta ostean euren gaineko segimendua egin.

Zuk Joana, orain proiektuaren ardura ero-

ango duzu. Zein da zure betekizuna?

Nire lana koordinatzea da. Taldeak osatzen ditut berbakideen ordutegiak eta gustuak kontuan hartuz, eta talde horien jarraipena egiten dut, beraien eskakizunak betetzen saiatzen naiz eta, arazorik egonez gero, taldekideekin batera konponduko ditut.

Zer eskatzen da parte hartzeko? Nora jo behar da?

Batez ere, gogoia eduki behar da, hori da garrantzitsuenak. Berbalagun proiektuan parte hartzeko izena eman behar da eta urte osoan zehar egin daiteke honako lekuetan: Tximintx euskara elkarteak: Derioko KZgunean 17:00tatik 19:00tara, 635 75 35 95 telefonoan edo tximintx@euskalerria.org eta derioberba@euskalerria.org helbideetan; Udal Euskaltegiak: 94 454 00 62 eta AEK Txepetxan: 94 454 39 67.

Deriokoa izan behar zara proiektuan parte hartzeko?

Berbalagunean parte hartzeko ez zara derioztarra izan behar inondik inora. Txorierri honen moduko proiektuak Larrabetzun eta Derion baino ez daude martxan, baina Txorierriko edozeinek (baita kanpokoek ere) hartu dezakete parte, inolako arazo barik.

Zelan hasi da ekimena eta zer aurreikusten duzue?

Ekimena guk uste baino motelago hasi da. Euskaldun berriak topatzea asko kostatu zaigu, baina gauzak hobera doaz. Momentu honetan talde batzuk ditugu martxan, baina izena emanda beste hainbeste. Falta dena da kide horiek gurutzatzea eta talde berriak sortzea. Hasiera batean, 25 pertsonak parte hartzea jarri genuen xedetzat. Lehenengo urtea da eta jaiotza guztiak bezala zaila izaten ari da erditzea, baina pittinka-pittinka ekimena sendotuz doa.

Phishing, iruzurtiak Interneten

Phishinga sarean zabaldu den iruzur-metodo berria da. Iruzurtiek erabiltzailearen edota bisitatu nahi den webgunearen identitatea ordeztu eta isilpeko datuak eskuratzeari lortzen dute. Horretarako, tro- yanoen eta gusanoen antzeko birusak erabiltzen dituzte.

Birus horien bidez, erabiltzaile- en klabeak eta datuak eskuratu eta haien kontu korrontek manipula- tzeko aukera izaten dute.

Banketxetako web orrialdeak ere faltsutzen dituzte. Horrela, bada, erabiltzailea bere kontu korrontean on line sartuz gero, datuak iruzurtiei ematen dizkie; ez ban- kuari.

Informatika-segurtasuneko enpresak iruzur-metodo horren aurkako teknika berriak lantzen dabilta; haien artean, era- bilera bakarrek sarbide-kodigoak daude. Kodigo horiek transakzio bakarra egiteko



balio dute, hau da, behin erabiliz gero, ezgaitu egiten dira.

Symantec enpresak egindako ikerketa- ren arabera, urtariletik ekainera bitartean munduan bidalitako 125 mezutik 1 iruzur on line saiaketa izan zen. Egutero 5,7 milioi phishing bidali ziren orotara.

Kili-kili aldizkariak badu tokia sarean



Kili-kili aldizkaria haur eta gaztetxo- ei zuzendutako euskarazko lehen argitalpena da. Aldizkaria Bilbon sortu zuten 1966. urtean eta ikasle euskaldunak hizkuntza mantendu eta lantzearen garrantziaz jabetzea zuen helburu euskarak garai latzak bizi zituen garaian, Francoren dikta- durapean.

Kili-kiliren azken alea duela urte bi kaleratu zen eta aldizkariak utzita- ko hutsunea betetzeko asmoz Interneten eskegitzea erabaki dute arduradunek. Kili-kili aldizkaria www.kili-kili.net helbidean dago.

Etxebizitzak salgai, sarean

Logelak eta etxebizitzak alokatzeko zein erosteko web orrialde bi jarri dituzte martxan Hego Euskal He- rrian. Lehenengoa www.alkila.net helbidean dago eta ekainean ipini zen Interneten; bigarrena www.alpiso.net helbidean dago eta iraile- an atera zuten. Web orrialdeok eus- karaz zein gaztelaniaz daude eta dagoeneko 14.000 bisita jaso dituz- te.



Hizkunea, soziolinguistikako agerkari elektronikoa

Eusko Jaurlaritzak Hizkunea bule- tin elektronikoa abian jarri du www.euskara.euskadi.net helbide- an. Agerkari horrek soziolinguisti- karekin zerikusia duten gaiak eta ezaguerak zabaltzea du helburu. Bertan lau atal nagusi aurki daitez- ke: artikulatuak, agenda, argitalpenak eta azterlanak.

Hitzmix, hitz eta zenbakien euskarazko jolasa

Elhuyar Fundazioak Hitzmix CD- ROMa kaleratu berri du. Proiektu horrek gazteek bakarka edo lagune- kin euskaraz jolastea du helburu; hala ere, adin guztietako jendeak erabil dezake. CD-ROMak bost joko ditu: letren saltsa, zifren saltsa, hitz- pasa, bortz eta hitz gurutzatuak.



Kantu ikastaroa eta kantu afaria: musika barra-barra

Azaroaren 22an, Santa Zezilia musikaren patroia eguna ospatu zen eta Lezaman ere hiru ekitaldi egin ziren, bertako Zorritzetan Euskera Alkartek antolatuta.

Azaroko lau ostiralak aukeratuta, iluntzeko 20:00etatik 21:30era "II. Euskal Kantuak" ikastaroa antolatu zuten Zorritzetakoek, Itsaso Arrieta irakasle ospetsuaren eskutik. Bere arrakastaren seinale izan da uztailan egin zen lehenengo ikastaroan 15 bat lagun batu baziren, bigarren honetarako 25ek eman zutela izena. Oso gustura geratu dira, amaieran pasatu zitzaizen galdera-sortak eta euren zuzeneko adierazpenek argi uzten duten bezala. Abatea gustuko izanez gero, ez zen beharrezkoa musika jakitea ez korukoa izatea. Progresio honetan jarraituz, hurrengorako apuntatuko direnak bi edo hiru taldetan banatzea pentsatu beharko dute antolatzaileek. Ikasi zituzten kantak, ederrak ezeze, gure kulturako zati melodiatsu esanguratsuak ere badira; esate baterako *Lezibatxu*, *Loriak udan*, *Txikitin parian*, *Goizian goiz jeikirik*, *Iturengo arotza*, *Dolu gabe*, *San Martin* eta beste batzuk.

Gero, kantu ikastaroaren azken egunarekin bat eginez, "Kantu Afaria" ere anto-



latu zuten. Beste ekitaldia bezala edozein herriko edo inguruko musikazale edo "txufra zalerentzat" zabalik. Lezamako Estanco jatetxean ia 50 lagun batu ziren mahai inguruan, eta Marik prestatutako menuarekin ondo afaldu ostean, goizalde arte ibili ziren kanta eta kanta, Bitortxu bera ere nekatu arte.

Eta ekitaldi bien bitartean beste hirugarren batek ere bere lekua egin zuen, "Kantu Txikiteoa" hain zuzen ere. Musikaren inguruan bere ekarpena plazaratuz (edo

"tabernaratuz"), Lezamako Ekidazu Korukoek, eurentzat urteko egunik esanguratsuena ospatzeko asmoarekin, eurak ere, afaldu aurretik herriko tabernak girotu eta alaitu egin zituzten, bakoitzean pare bat abesti lau kordara kantatuz. Azken hiru-lau urteotan egin duten ekitaldi honekin, bide batez ondo pasatuz, abesbatza herrian ezagutu arazi gura dute. Eta fitxaketaren bat lortuz gero... pozarren.

Datorren urteko Santa Zezilia egunean gehiago eta hobeto. Bien bitartean, urte barruan ere gero eta gehiago kantatzeko asmoa eta gogoia ikusten da Lezama aldetik. Hala izan dadila!

Hitzak eta partitura: Pospolin

Eta, irakurleok, zein da zuon iritzia? Gura baduzue idatzi gure helbide elektroniko honetara:
aikormusika@yahoo.es

Anguleri jauregia, bidelapurren ezkutalekua

Larrabetzuko Anguleri jauregia duela urte bi eraberritu zuten, eta bertan kokatu dute Kultur Etxea. Jauregiak badu historia berezi bat. Historia hori *Monumentos de Bizkaia* liburuan batuta dauka Foru Aldundiak.

Betidanik, eraikuntza bitxitzat jo izan dute Anguleri jauregia. Izan ere, baserriaren eta jauregiaren estrukturak uztartzen ditu. Kondairaren arabera, ondoko errekan angulak zeuden antzina, eta angula horiek finkako lorategian sartzen ziren, ubideen bidez. Jauregiak kontu horretatik hartu omen zuen izena.

Egia edo legenda, ikertzaileek ez dute topatu hori egiaztatzeko daturik. Are gehiago, ezin izan dute zehaztu etxearen jatorria. Bildu dituzten datu fidagarri gehienak XVIII. mendekoak dira. Hala ere, jauregia oso hurbil dago Foruen Zin Bidetik, eta jatorrizko eraikina dorretxea izan zitekeen, beharbada.

Laudioko Jose de Olazabalaga y Saez de Amaricak 1777. urtean jauregia erosi zuen. Hil ondoren, Ramona Olazabalaga y Malquarto haren alabak heredatu zuen etxea. Juan Francisco de Meabe y Gallarzarekin ezkontuta zegoen Ramona. Nahiz eta senarraren familia Markinakoa izan, Larrabetzun bizi izan ziren, eta ezkontza horren ondorioz, Meabekoek jauregiaren jabetza eskuratu zuten.

Anguleri jauregikoek Goikolexearako bidea kontrolpean izateaz gainera, errotak ere bazituzten. Hori dela eta, XVIII. eta XIX. mendeetan, ekonomia-gune garrantzitsua izan zitekeela pentsatzen dute iker-



lariak.

Baina beste kondaira bitxi bat ere bada- go etxearen gainean. Antzina, "Patacon" bidelapurra izan omen zen. Pataconek Robin Hoodek bezala egiten zuen: aberatsei lapurtutakoa behartsuei ematen zien. Oso bidelapur azkarra zen eta ez zuten

inoiz harrapatu. Kontatzen dute bere atzetik zebiltzanak despistatzeko, zaldiari aldrebes jartzen zizkiola ferrak. Jauregiaren estolderian ezkutatzen zen Patacon, ziur asko. Karlistek ere horrela egiten omen zuten, liberalak menditik zein herri- tik euren bila ibiltzen zirenean.

Sukaldaritza

Sagar-zopa hotza, curryarekin

Osagaiak:

- sagar gorri bi
- arrautza-gorringo handi bi
- limoi ura (limoi erdia)
- gurina (intxaur baten tamainako puska)
- koilarakada bat curry
- tipula bat
- baso erdi esnegain
- hiru baso barazki-salda
- eskukada bi berro

Prestatzeko era:

Tipula zuritu eta zatitu; sagarretariko bat ere xaflatan ebaki.

Gurina urtu eta tipulari frijitu arin bat eman, gorritu arte.

Horri sagar zuritua, salda eta currya gehitu eta irakiten jarri.

Irakiten hasten denean, tapa ipini eta 20 minutuan egosi su motelean.

Apur bat hozten utzi eta puregailutik pasatu edo irabiagailuaz xehatu; gatzaz eta piperraz ondu eta esnegainarekin nahasitako arrautza-gorringoak zopari gehitu.

Minutu batzuk su motelean eduki eta eragin, harik eta zopa loditu arte.

Zopa-ontzi batera bota eta hozkailuan gutxienez hiru orduan hozten utzi.

Beste sagarra zuritu eta dadotan ebaki. Kaiku txiki batean limoi urarekin ipini, ez dadin ugertu. Mahaira atera baino lehen, sagar-dadoak eta berroak zopara bota eta eragin. Jateko prest dago.



Zirikilote-pasteltxoak

Osagaiak:

- 250 g koipe
- 2 kilo irin
- 6 arrautza-gorringo
- 750 g azukre
- limoi birrindurak
- zorrotada txiki bat jerez

Prestatzeko era:

Koipea, arrautzak, azukrea, limoia eta ardoa nahastu, oreka ondo egin arte.

Biribiltxo meheak egin eta zirikilotez edo aingeru-ilez bete. Arrautzaz pintatu eta labean egin su ertainean.

Urdaiazpiko eta tomate budina

Osagaiak:

- 200 g tomate heldu
- 4 arrautza
- 2 urdaiazpiko xerra
- esnea
- gurina
- azukrea
- gatz apurtxo bat
- cherry tomate batzuk, apaingarri ipintzeko

Prestatzeko era:

Tomateak garbitu eta zuritu. Azukre

apurtxo bat egin eta irabiagailua erabili, purea egiteko. Arrautza-gorringoak tomate purearekin nahastu.

Arrautza zuringoak elur-punturaino irabiatu eta albo batean utzi. Urdaiazpiko xerrak txikitu eta haiek ere albo batean utzi. Banakako flan-ontzi batzuk gurinaz igurtzi.

Purea zartaginean ezarri eta sutan eduki. Arteetan denbora osoan eragin. Elur-punturaino irabiatu diren zuringoak, gatza eta piperra gehitu. Ondoren, urdaiazpiko txikitua eta zorrotada bat esne bota. Eragin.

Hura guztia flan-ontzi prestatuetan ezarri. Labea 180°C-tan berotu. Tenperatura horretan dagoenean, flan ontziak sartu eta bertan eduki, gatzatu arte.

LIBURUAK

Euskal sukaldaritzaren antropologia

Edorta Agirre Alonso

Kleopatra

Jon Arretxe

Detektibe istorioa

Vredaman

Unai Elorriaga

Pololoak

Patxi Gallego

Komikia. Nobela grafikoa, hainbat topikori barre egiten diona.

Edurneren kondaira

Antton Irusta

Zortzi urtetik aurrerako gaztetxoentzat. Pirinioetan hatx baten ganean dagoan gazteluari argazki batzuk ateratzekotan dabilz Nuria eta Josefa. Bat-batean, edurra hasten da. Estatura itzultzean aitatak gaztelua madarikatuaren kondaira kontatzen deustie.

Bazapiztia bat zopan

K. Santisteban

MUSIKA

40 urtez ikasten egonak. Benito Lertxundi. Gernikan eta Tolosan zuzenean grabaturiko disko bikotxa. Berrogei urtez egindako lanari errepasoa emoten deutso bertan Benitok.

Egizu lo: lotarako kantak. Musikari ezagunak bildutako hamazazpi kantuz osatuta. Benito Lertxundi, Oskorri, Julen Lekuona eta Jon Bergaretxe, Olatz Zugasti, Amaia Zubiria eta Xabier Lete, besteak beste.

DENBORA PASA

LETRAZOPA

K	A	P	E	S	K	I	L	A	S	O	A	B
U	L	A	Y	R	B	E	U	F	G	Y	H	A
R	T	A	A	P	D	B	K	H	E	J	R	S
A	G	O	L	E	X	F	T	S	L	X	A	O
O	Z	A	E	X	T	O	L	I	M	A	Y	L
L	T	B	U	S	K	A	D	R	R	J	X	L
L	S	B	D	B	I	T	E	R	U	G	P	A
O	L	F	E	H	D	P	O	N	S	I	Y	R
S	M	J	I	P	J	G	T	M	J	F	O	R
O	Y	G	S	I	O	O	Ñ	X	Y	O	Z	A
M	K	U	R	L	I	N	K	E	A	Z	N	L
S	N	Ñ	L	N	M	K	Z	L	K	E	H	H
R	X	O	M	D	I	G	Ñ	Z	N	M	O	F

A	P	B	I	D	E	G	A	R	R	O	A	U
T	R	U	S	F	G	Y	F	K	R	K	H	O
S	H	T	E	B	S	U	O	Y	E	I	L	M
Ñ	E	D	N	D	R	G	A	J	Y	L	I	S
L	Y	T	H	K	I	P	R	F	H	E	N	J
U	A	B	D	T	H	X	R	K	B	Z	Y	U
I	R	S	X	D	G	Z	O	X	E	A	O	R
M	R	P	J	I	M	X	G	P	L	K	J	X
R	A	R	R	A	Z	T	N	A	K	J	A	O
A	N	G	O	P	H	Y	I	L	O	Z	X	B
I	T	E	U	F	M	P	M	N	S	E	I	
N	S	R	N	H	O	A	G	Ñ	L	E	O	B
G	A	B	O	N	T	Z	A	F	A	Z	D	S

Aurki itzazu goiko letrazopan beste **7 txorien izenak***. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dagozala.

* "Zamudio berbarik berba" liburutik jasoak.

Ezkerraldean Aikor! 43. zenbakiaren letrazoparen erantzuna. 7 txorien izenak Txorierrin esaten dan erara idatzita.

Euskal herriko d-generazioa

Entzun dot gabanatan gure gurasuak erregalatuak zituen skatzen diuzteia, ez Olerioz...

Bel, baobabiz, gero ta, jende gahiaga mundu honetan Olerioz gurasuak menditik herria erregalatuak bajatzeagaz...

Lib. Olerioz

aritz eta nagel
dikari! or-eko aberriak n



Euskal Herriko d-generazioak urte berri! or-eko aberriak n